

Proiektua ondo funtzionatzeko, BiteGuard-ek **baliabide batzuk ezinbestekoak** ditu, bai produkzioari bai kudeaketari dagokionez.

Alde batetik, baliabide materialak daude. Horien artean garrantzitsuena **hartz-protesiaren lantegia edo laborategia** da, non aho-babesleak egiten diren. Bertan, moldeatzeko, mozteko eta leuntzeko behar den makineria erabiltzen da, eta beti **material odontologiko seguruak eta biobateragarriak** erabiltzen dira.

Bestetik, giza baliabideak oso garrantzitsuak dira. Hartz-protesiaren teknikari batek aho-babeslearen diseinua eta fabrikazioa egiten du, eta beste pertsona batek kudeaketa, salmentak eta klubekin harremanak lantzen ditu. Gainera, bezero-arreta eskaintzen da, bezeroen zalantzak eta beharrak asetzeko.

Azkenik, baliabide ukiezinak daude, hala nola proiektuaren marka, produktuaren diseinua eta klubekin zein ikastetxeekin egindako akordioak. Baliabide hauek proiektuari sinesgarritasuna eta jarraikortasuna ematen diote.

## **Baliabide materialak**

- Hartz-protesiaren lantegia edo laborategia.
  - BITEGUARDen ekoizpena hartz-protesiaren lantegi txiki batean egiten da. Espazio honek baldintza higieniko egokiak betetzen ditu eta lanerako antolatuta dago, prozesu segurua eta kontrolatua bermatuz. Bertan egiten dira moldeaketa, egokitzapena eta azken akaberak.
- Aho-babesleak fabrikatzeko makineria espezifikoak.
  - Termoformadora, materiala moldatzeko
  - Mozteko eta doitze-makinak, aho-babeslearen forma zehazteko
  - Leuntzeko eta akabera-makinak, erosotasuna eta segurtasuna hobetzeko
  - Makineria honek kalitate konstantea eta ekoizpen eraginkorra ahalbidetzen du.



## MAKINERIA ETA PREZIOAK



| Makina                                                                             | Funtzioa                | Gutxi gorabeherako prezioa |
|------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------|----------------------------|
|   | Termoformatzeko makina  | 1.500-2,800 €              |
|                                                                                    | Aho-babeslea moldeatzea | 1.500-2,800 €              |
|   | Mozteko makina          | 800-1,400 €                |
|                                                                                    | Forma egokitzea         | 800-1,400 €                |
|  | Leuntzeko makina        | 500-900 €                  |
|                                                                                    | Amaierako akaberak      | 600-1,100 €                |
| Konpresorea                                                                        | Tresnak elikatu         | 600-1,100 €                |
| ✓ Oinarrizko eskanerra (aukerakoa)                                                 |                         | 1,800-3,800 €              |
| ✓ Ordenagailua + softwarea                                                         |                         | 900-1,400 €                |



✓ Aholkularitza pertsonalizatua

✓ Telefonoa, posta elektronikoa eta webgunea

✓ Entrega azkar eta moldagarria

- Material biobateragarriak.
  - Produktuaren segurtasuna bermatzeko, odontologian homologatutako materialak erabiltzen dira, hala nola EVA termoplastikoa edo silikonak.Material hauek:
  - Erresistenteak dira
  - Ahoarekin bateragarriak
  - Garbitzeko eta mantentzeko errazak
- Ontziratze-sistema higienikoak.

- Aho-babesle bakoitza ontzi higieniko indibidual batean entregatzen da, bezeroari produktu segurua eta profesionala eskaintzeko. Gainera, ontzi pertsonalizatuak erabil daitezke markaren irudia indartzeko.

## **Giza baliabideak**

- Hortz-protiesietako teknikaria
  - Teknikariak aho-babesleen:
    - Diseinua
    - Fabrikazioa
    - Kalitate-kontrola egiten ditu. Bere ezagutza teknikoari esker, produktu fidagarria eta segurtasun estandarrei egokitua lortzen da.
- Kudeaketa eta salmenten arduraduna.
  - Pertsona honek honako eginkizunak ditu:
    - Eskaeren kudeaketa
    - Prezioen eta eskaintzen antolaketa
    - Klub eta ikastetxeekin harremanak
    - Webgunearen eta salmenten jarraipena

## **Baliabide ukiezinak**

### Proiektuaren marka (BITEGUARD)

Markak segurtasuna, kirola eta profesionaltasuna transmititzen ditu. Marka sendo batek:

Produktua identifikagarria egiten du

Bezeroaren konfiantza handitzen du

Merkatuan posizionamendua ematen du

### Produktuaren diseinua

Aho-babesleen diseinu pertsonalizatuek (koloreak, izenak, taldeak) produktuari balio erantsia ematen diote, batez ere gazteen artean.

### Klub eta hezkuntza-zentroekin egindako akordioak

Akordio hauek salmenta egonkorra eta epe luzerako harremanak ahalbidetzen dituzte.

Gainera:

Produktuaren sinesgarritasuna handitzen dute

Hedapena errazten dute

Marka komunitatean txertatzen dute